

Kultura

Ia 500 preso eta errefuxiatuen testuekin osatutako
'Ametsen liburua' aurkeztuko dute Durangon > 13



Sagardo denboraldiari hasiera eman diote asteen
Zornotzako Uxarte sagardotegian. Bestalde, eremu
komertzialetik aparte, Zezpala sagardoa egiten dabilen
lagun taldea ezagutu du ANBOTOk, Garain. > 3

Durangaldean Txotx!

Mañariko plazan dagoen kioskoa umeentzako jolasleku bihurtuko dute

Mañariko aurrekontu parte-hartzaileak landu ostean, plazako kioskoa
umeentzako jolasgune bihurtzea erabaki dute. Umeekin tailerrak egin
zituzteniaz, beraien beharrianak zuzenean ezagutzeko. Gero, herritarguztiei
zabaldu zieten parte-hartzeko aukera. Azkenean, kioskoaren proiektuagaz
umeen eta helduen ideiak bateratzea erabaki dute. > 6

*“Erasoak, min egitea...
ez dira jolasa; oso
garrantzitsua da
bereiztea” > 12*

Esther Oliver | Irakasle eta ikertzailea



HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Erdu Gurekin! Berrizko euskal eskola publikoa

LEARRETA-MARKINA eskola
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 344 | 014097aa@hezkuntza.net
www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

IES BERRIZ BHI
Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 962 - 015073aa@hezkuntza.net

Aurrematrikula
URTARRILAK 25
OTSAILAK 5

2 urtetik 16 aurrera · Jantokia eta garraioa · Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz

Durango > 2

Gorrotxategi eta Ardanza
Madriren ganberetan

Mallabia > 9

Orbearen 175. urteurrena
instituzio eta txirrindulariekin

Iurreta > 8

Biblioteka eta Askondo,
aurtengo proiektu nagusiak

Durangaldea > 4

'anboto.org' atariko bisitak
%60 hazi dira urtebetean

> Herririk herri

Gorrotxategi eta Ardanza, Madrileko eztabaida politikoan

Miren Gorrotxategi eta Pilar Ardanza durangarrak, Madrilén ganberetan

DURANGO Markel Onaindia Abenduaren 20an egindako Espainiako hauteskundeek mapa politiko zatikatua utzi zuten, alderdi-bitasunaren amaiera islatuz eta gobernu osatzeko panorama zaila ekarriz. Hasieran, bazirudien hauteskundeak errepikatu beharko zirela; gero, PP, PSOE eta Ciudadanosen arteko gobernu zebilen ahorrak; orain, indar gehiago hartzen dabil PSOEko Pedro Sanchez buru izango duen gobernuaren auzera. Egoera politiko horren erdian, durangar bi daude: EAJko Pilar Ardanza kongresuan, eta Podemos-Ahal Duguko Miren Gorrotxategi senatuan.

Unearen garrantziaz

Senatua bigarren mailako ganbera bat dela onartu arren, bere partaidetzagaz pozik dago Gorrotxategi, eta egoera politikoaren

ren garrantzia nabarmendu du: “Azken urteetako une politiko-rik interesgarriena da”. Gobernu osaketaren negoziazioetan bere alderdiko zuzendaritza dabilela dio: “Egunero dabilta elkartzen. Esperantza daukat gobernu osatuko dela, eta aurrrera egingo dugula”.

Senatuko mahaiko presidenten izateko hautagaia izan zen bere alderdiaren izenean, baina PPK gehiengoa du senatuan, eta presidentea Rajoyren taldekoa izango da. Gainera, “PP, PSOE eta EAJren arteko akordio baten erruz”, azkenean mahaitik kanpo ere geratu dira Pablo Iglesiasen alderdikoak.

Gorrotxategi Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea da EHUn, eta beraz, “profesionalki ere interesgarria” izango da berarentzat senatuan parte hartzea.

“Ardura eta ohorea”

Pilar Ardanza jeltzaleak ibilbide luzea du atzetik. Durangoko alkate eta Bizkaiko diputatu izan ostean jesarriko da kongresuan. Bere kargu berriaren ardura aipatu du: “Ardura eta ohore handia da Madrilén EAJren ordezkari izatea, baita herritarren hitza edukitzea ere”.

Aniztasun politikoa hartu du berbagai: “Orain arte, kongresua aspergarria zela zioten batzuek. Bada, orain, beste era batera aurkezten da”.

Bestalde, gobernu osaketaren inguruan, “guztia zabalik” dagoela esan du Ardanzak, eta hurrengo asteetan gaiak gehiago jakingo dela: “Ikusiko dugu ea posible den dauden sentsibilitate guztiekin gobernu osatzea. Osatzen bada, biztanleen arazo, nahi eta ilusioak ordezkatzeko ditugu”.



Miren Gorrotxategi senatuan egongo da.



Pilar Ardanza kongresuan egongo da lehen aldiz.



Udal liburutegia izango da emakume izena hartuko duen eraikinetako bat.

Emakume izena ipiniko diete udal liburutegiari eta kiroldegiei

Hainbat kale edo eraikini emakume izena ipintzea adostu zuten udal bilkuran

DURANGO M.O.

Durangoko udal liburutegiak eta Landakoko kiroldegiek emakume izena edukiko dute laster. Iaz, Durangoko hainbat kale, plaza edo eraikini emakume izena jartzeko erabakia hartu zuen osoko bilkurak, Berdintasun Kontseiluaren proposamena bere eginez, eta, hain zuzen ere, kontseilu horretan dabilta hiru eraikinrentzako izen posibleak aztertzen.

Izenak aukeratzeko dituztenean, batzordean landuko di-

tuzte lehenik, eta gero, osoko bilkuran eztabaidatuko dituzte.

Berdintasun Kontseiluan konturatu ziren Durangon ez dagoela ia emakume izena duen kalerik, eta horren atzean, emakumeek bizi izan duten “diskriminazio historikoa” dagoela uste dute. Parekidetasunaren ikuspegitik emakumeen presentzia indartzeko asmoz aurkeztu zuten proposamena.

Ekarpinak agerian
Euskal Herriaren historian

emakumeek egin dituzten ekarpen garrantzitsuak agerian ipintzeko helburua dauka egitasmoak. Horrela, hiru baldintza dute balizko izenek: Euskal Herrikoa izatea –Durango edo eskualdeagaz lotura eduki izana lehenetsiko da–, berdintasunaren alde lan egin izana, eta hildakoa izatea.

Liburutegiari eta kiroldegiei emakume izena ipintzekoa, proiektuaren lehenengo pausoa da, eta gerora, kaleen atala etorri beharko litzateke.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko urtarilaren 22a
14. urtea - 617. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Armaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Zezipala sagardoa: auzolanean eginiko gertakizun polit bat

Lagun koadrila bat sagardoa egiten dabil Garain, Durangaldeko baserrietako sagarrak erabilia

ERREPORTAJEA M.Onaindia

“Gertakizun polit bat, behin Asturiasen...”. Horrela hasten da Kupela taldearen abesti ezaguna. Baina, sagardoaren inguruko esperientzia politak bizitzeko, ez dago zertan Asturiaseraino joan. Durangaldean, Zornotzako Uxarte sagardotegian bazkaltzea izan daiteke aukera bat, edota Iurretako Trazolakoen eta Zaldibarko Aitor Intxaurragaren sagardoak edatea beste bat. Bestalde, eremu komertzialetik aparte, bada go sagardogintzaren inguruko proiektu interesgarri bat ere: Zezipala sagardoa. Auzolanean eta autogestioan oinarrituta, hamabost bat sagardoazaleko koadrila baten eskutik datorren gertakizun polita.

Garaiko Etxeita baserria dute topagune. Ibon Berriozabalgoitia da bertakoa: “Koadrilako hainbat baserrikoak gara, eta beti ibiltzen ginen sagardoa egin behar genuela esaten, sagar pi-

loa sobera ikusita. Azkenean, duela hiru urte egin genuen. Prentsa txiki bat utzi ziguten, eta gure baserrietan zein ingurukoetan sagarrak batu genituen. 150 litro irten ziren”. Hurrengo urtean, beste kupel bat erosi, sagarra txikitzeo makina elektrikoa gero... Aurten, dagoeneko, 1.500 litro ekoitzi dituzte. Sagardoa eurentzat eta ingurukoentzat da batez ere, Egoitz Uriartek azaldu duenez. “Beste modu bat da; dena ez da erostea. Edozeinek egin ahal du bere ingurukoagaz”.

Baserritarrekin trukea
Proiektu honek badu beste bere-

1.500
litro sagardo ekoitzi
dituzte aurten



Egoitz Urien eta Ibon Berriozabalgoitia, Etxeita baserrian, sagardo kupel artean.

zitasun bat, egileen eta baserritarren arteko trukea. Uriarte: “Baserritar batzuek sagarrak ematen dizkigute, eta guk sagardo botilak ematen dizkiegu ordainetan”. Aurten, lau tona sagar batu dituzte Garain, Arrazolan, Izurtzan eta Mendiolan. Baserritarren harreraz berba egin du Berriozabalgoitiak: “Pozik hartzen dute. Izan ere, normalean, baserritarrek sagarrondo piloa edukitzen dute, baina jan, gutxi jaten da. Esaterako, errege-sagarrak gorde egiten dira, laban egiteko edo, baina

beste asko animalientzat dira, edo soberan geratzen dira”.

Autodidaktak

Autodidaktak dira. Irakurri, galdetu, probatu... Orain, Etxeita baserriaren bueltan, tokiko sagarrak landatzen hasi dira, 25 bat klase desberdin, Berriozabalgoitiaren esanetan. “Klase askotako sagarren nahasketatik irteten da sagardo ona”. Tratamendu kimikorik eta sulfitorik barik sortzen dute edaria.

Egitasmoak lagun taldea indartzeko balio izan die, gainera:

“Batek lana daukala, besteak seme-alabak... honi esker, denok batzen gara, afaltzeko edo beharrerako”, esan du Uriartek.

Datorren asteburuan elkartuko dira berriro, sagardoa botiletan sartzeko asmoz. “Gainera, urtero, gure txotx propioa egiten dugu botiletan sartu eta pare bat astera”, dio Berriozabalgoitiak.

Kupeletik ziria atera, eta txotx egin dute Zezipalako Berriozabalgoitiak eta Uriartek. Sagardo gozoa dator; tradizioaren indarragaz eta gaztetasunaren freskuragaz.



Aitor Intxaurraga eta Aitzol Atutxa Uxarteko aurkezpenean.

Upelak bete-beteta daudela hasi dute Bizkaiko sagardo denboraldia

Aurten, 180.000 litro sagardo ekoiztu dituzte, iaz baino 30.000 gehiago

ZORNOTZA J.D.

Bizkaian eta Bizkaiko sagarragaz ekoiztutako sagardoagaz bete-beteta daude upelak. Iazko negua aproposa izan da sagar-arbolentzat, eta udaberriko eguraldiak loraldian lagundu du. Ondorioz, sagar asko batu dute, eta iaz baino 30.000 litro gehiago ekoiztu ahal izan dira aurten: 180.000 litro, guztira.

Aurtengoa gorputz ederreko sagardoa dela nabarmendu zuten Bizkaiko sagardo denbo-

raldia abiatzeko, martitzenean, Zornotzako Uxarte sagardotegian egindako ekitaldian. Alkohol graduazio altuagoa du, eta fruta usain freskoak ditu. Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko presidente Aitor Intxaurragaren esanetan, “erraz eta gustura edatekoa da, suabea, goxo puntu bat duena”.

Bizkaiko sagardoak ez du nolanahiko enbaxadorea. Aitzol Atutxa Euskal Herriko aizkolari txapelketa irabazi duen

aurreneko bizkaitarra da. “Ilusio handiz” hartu du enbaxadore lana, eta aurtengo sagardoa “edateko erraza eta aho zapore finekoa” iruditu zaio.

Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkateagaz batera, Jaur-laritzako eta Aldundiko agintariak batu zituen Uxarteko aurkezpenak. Jaur-laritzako Bittor Orozen berbetan, euskal sagardoaren inguruan plangintza bat lantzen ari dira, AEBeta-ko merkatuan sartzeko.



Maria Bitarteko

Tel.: 946 231 626
Ikastetxea www.mariabitarteko.com



Lourdesko Ama

Tel.: 946 820 056
Ikastetxea www.lourdeskoama.es

‘Anboto.org’ webguneko bisita kopurua %60 hazi da urtebete

ANBOTOn atari digitalak emaitza arrakastatsuak eduki ditu 2015ean, 2014ko datuekin konparatuta



ANBOTOn webguneko informazioa jasotzeko, telefono mugikorren bidea asko hazi da 2015ean.

DURANGALDEA M. Onaindia ANBOTOn webgunek (www.anboto.org) emaitza arrakastatsuak eduki ditu 2015ean. Izan ere, 2014agaz konparatuta, %60 hazi da irakurleen bisita kopurua. Proiektuak Durangaldean dituen harrera eta eragina erakusten dute datuok. Pausoz pauso, ANBOTOn erreferentzia handitzen dabil Interneten. Horrela, gero eta gehiago dira eskualdeko in-

formazioa egunero euskaraz irakurtzen dutenak.

%40, telefonotik

Amaia Ugalde kazetaria da webgunearen arduraduna, eta audientzia igoera horretan hainbat faktorek lagundu dutela dio. Informazioa jasotzeko ohiturak aldatzen doaz, Ugaldere araberak: “Gero eta garrantzi handiagoa dute sare sozialek eta telefono mugikorrak. Sareetan egiten dugun ahaleginak eta

webgunearen diseinu egokituak erabiltzaileen bisitak indartzeko balio izan dute”. Gaur egun, bisitarien %35 sare sozialetatik dator, eta mugikorren erabilera ere handitu da: “Hazkunde handia nabaritu dugu: bisitarien %40 mugikorretik sartu dira 2015ean, eta 2014an %25,52k erabiltzen zuten bide hori”.

Sare sozialei dagokienez, Facebook eta Twitter gehituta, 1.200 lagun gehiago batu dira urtebete.

Bestalde, 2014an Zornotzako albisteak jarraitzen hasi izana era bada gora egitearen kausa garrantzitsuetako bat.



AMAIA
UGALDE

Momentu honetan, Tokikom tokiko hedabideen elkartearen plataforma digitalean dago ANBOTOn webgunea, beste 11 atarigaz batera.

Paperekoa, irakurriena

Bestalde, papereko ANBOTOn irakurleak ere goraka doaz. 2015ean Durangoko Udalak egindako inkestaren arabera, komunikabide irakurriena da; inkestaren %41ek aukeratzen dute euskara hutsezko astekaria bertako gertakariez informatzeko. Uneotan, 11.500 aleko tirada dauka. Euskal Herrian, Jaurilaritzak eginiko azterketaren arabera, tokiko hedabideen irismenari dagokionez, hirugarren lekuan dago Durangaldekoa, Goiena eta Ttipi-Ttaparen atzetik. Gainera, *Anboto Lagunen* taldea handitzen dabil; proiektua babestearen truke, hainbat opari jasotzen dituzte.

Drogen prebentziorako ikastaroak prest

DURANGALDEA M. O.

Amankomunazgoko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak antolatutako Guraso Eskolan bost ikastaro eskainiko dituzte, aurturten. Hain zuzen ere, martxoan hasiko dira saioak, eta urtarrilaren 29ra arte eman ahal dute izena interesdunek.


Prensa ohar bidez azaldu dutenez, eskola umeak dituzten gurasoei zuzendutako ekimena da, batez ere, baina gaiarekiko interesa dutenek ere badute parte hartzeko aukera. Ins-

Martxoan hasiko dira saioak, eta urtarrilaren 29ra arte eman ahal dute izena interesdunek

kripzioa egiteko, 94 620 05 20 telefonora deitzea edota *prevention.mdurango@bizkaia.org* helbidera idaztea eskatu dute antolatzaileek.

Gai ugari

Hainbat izango dira Guraso Eskolako bost ikastaroetan jorratuko dituzten gaiak: haurtzaroko edota nerabezaroko prebentzioa, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa, afektibitatea, emozioen oreka, frustrazioen gestioa, edota autoestimua, adibidez.



Udal liburutegiaren berri jasotzen duen blog berria indarrean dago

IZURTZA J.D.

Udal liburutegia biziberritzeko eta bertan egiten diren ekintzen berri emateko blog berria indarrean dago. Izurtzako Udaleren webguneko (www.izurtza.net) eskumaldean, ‘Liburutegia’ izenburua duen atalean klikatuz sartu daiteke.

Hainbat ataletan banatu dute informazioa. Batetik, liburutegian ez dauden liburuen kontsulta egin daiteke. Horretarako, Euskadiko irakurketa publikoko sarera sartzeko aukera eskaintzen da. Beste atal batek liburutegi eta KzGuneari buruzko informazio orokorra jasotzen du: ordutegiak, eurekin harremanetan jartzeko aukera... Hirugarren atal batean, liburuen iruzkinak jarriko dituzte, eta kultur ekitaldien gaineko informazioa jasoko dute.

‘Gurea da Garaipena Eguna’ aldarrikatuko dute biharko ekintzekin

ZALDIBAR I.E.

Gurea Da Garaipena Eguna ospatzeko egitaraua prestatu dute, Zaldibarren, biharko. Iazko urtarrilekoa bezala, egun osoko egitaraua izango da biharko ere. *Pauso bat ere ez atzera, gurea da garaipena!* goiburuak batuko ditu biharko hitzordu-ko ekintza guztiak.

Hasteko, 11:00etan, elkartasun pegada egingo dute, Herriko aurreran, eta elkartearen aurkezpena eta bazkari herrikoia, ondoren. Olazar frontoian izango da bazkaria, eta Daltondarren musikak giroa du bazkaloste. Poteo girotuaren eta manifestazioaren ostean, musikagaz amaituko dute eguna. Shock Waves iruindarrak, eta Durangaldeko Nevadah eta Worth It ariko dira, 22:30ean, Gaztetxean.

Udal gobernua pozik, gabonetako bonoek eduki duten harreragaz


ZALDIBAR I.E.

Jendeak herriko dendetan kontsumi dezan bultzatzeko, *Zaldibarren bizi*, *Zaldibarren erosi* kanpaina abiatu zuen udalak urte amaieran, 15 merkatariren babes eta parte-hartzeagaz. Hamar euro ordainduta, herriko dendetan erosteko hoge euroko balioa zuten 500 bono atera zituzten, eta 468 erabili zituzten herritarrek.

Udal gobernua eta ekimenean parte hartu duten merkataria kanpainak izan duen harreragaz oso pozik dauden arren, Arantza Baigorri alkatearen berbetan, hurrengo kanpainari begira, badago zer hobetua ere: “Herriar bakoitzak gehienez bi barik, bono bakarra eskuratu ahal izatea, eta kanpainaren berri hobeto ematea, esate baterako”.

jsu
JESUITAK
Durango

San Jose Ikasterxea



94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitetz.eus

Mañariko plazako kioskoa umeentzako jolasleku bihurtuko dute

Mañariko aurrekontu parte-hartzaileen prozesua berritzailea izan da; umeekin tailerrak egin dituzte

MAÑARIA Markel Onaindia

Mañariko aurrekontu parte-hartzaileek proiektu berri-tzaile bat dakarte, aurten: plazako kioskoa umeentzako jolasleku bihurtzea. Hori izan da herritarrek, umeek barne, ondorioztatu dutena. Izan ere, prozesua bera ere berritzailea izan da; umeekin tailerrak garatu dituzte, euren nahi eta behar-rrizanak zuzenean ezagutzeko.

Jolasen bidez, dozena bat umek Mañarirako dituzten ametsak marraztu dituzte. Azken emaitzan, hiru ideia nagusi: tirolina bat ipintzea, eskalada-murru bat prestatzea, eta urtean zehar tailerrak antolatzea.

Gero, herritar guztiei zabal-dutako partaidetza dinamikan, kioskoa, plazan dagoen jolas eremuaren baitan sartzeko proposamena egin du guraso batek, eta ideiaz bat egin dute partaideek. Ondorioz, ume eta hel-

duen ideiak bateratzea erabaki dute. Udalaren aurrekontu biak ere batu dituzte, umeen proposamenetarako gordeta zeuden 10.000 euroak eta herritar guztien 15.000 euroak, hain zuzen. Partaide batek etorkizuneko kioskoaren maketa landu du.

Txirristak, eskalada-murru txiki bat, tirolina bat, sare bat eta sokekin igotzeko gune bat edukiko ditu

Beraz, txirristak, eskalada-murru txiki bat, tirolina bat, sare bat eta sokekin igotzeko gune bat edukiko ditu kiosko erabe-rrituak. Gainera, kanporantza ere hedapen bat ipiniko diote, leku gehiago egoteko. Kioskoak zentzu berri bat hartuko du, eta normalean erabiltzen ez den



Prozesuan parte hartu duen herritar batek kiosko berriaren maketa bat sortu du.

bertako aterpea aprobetxatu-ko dute, eguraldi txarra egiten duenean ere umeek non jolastu eduki dezaten.

Udalaren konpromisoa

Endika Jaio alkatea pozik ager-tu da aurrekontu parte-hartzaile-
leen prozesuagaz eta emaitza-gaz. "Plazari zentzu ludiko bat

emateko aukera" lez ikusten du proiektua. Jaiok azaldu du aurreikusitako 25.000 euroekin akaso ez dutela nahikoa izango kioskoaren obra egiteko, baina, beharrezkoa bada, aurrekontu orokorretik gehiago ipiniko dutela. "Aurten egiteko konpro-misoa hartu dugu", esan du EH Bilduko alkateak.

Umeen partaidetza bala-razioa egiterakoan, "demokra-zia parte-hartzailean hezteko" modu bat dela uste du Jaiok. Hain zuzen ere, umeekin bate-ra aurrerantzean jolasgunea egokitzen joatea da udalaren asmoa: "Umeen artean auzola-nean eraikitako jolasgunea iza-tea gura dugu".

Gatza hartzeko lau edukiontzi jarri dituzte

Apatan, Axpen, Arrazolan eta Santixan bana daude

ATXONDO J.D.

Aurreko urteetan, 1.000 kilora arteko gatz zakuak ipini zituzten herriko hainbat kokagune-tan, udal langileek zein herrita-rrek eskura izateko, edurra edo izotza egiten zuenean. Zakuek, baina, "itxura eskasa zuten, eta, gainera, euriagaz gatza urtu egiten zen", udal orde-zkariak adierazi dutenez. Auzo batzarretan horren gaineko ke-xaren bat zegoela-eta, gatza modu txukunean gordeta izate-ko, udalak 500 kiloko edukiera

duten lau edukiontzi ipini ditu, Apatan (posta bulego ondoan), Axpen (eliza ostean), Arrazolan (Elizondoko aparkalekuan) eta Santixan (zabor edukiontzien ondoan) banatuta.



Jakoba Errekondok hitzaldia eskainiko du, eguaztenean

ATXONDO J.D.

Jakoba Errekondo agrono-mo eta paisajista usurbildar-rak hitzaldia eskainiko du, urtarrilaren 27ko eguaztenean, 18:00etan, Atxondoko eskolan. Guraso elkarteak da antolatzaile-a, eta hitzaldirako sarrera doakoa da. Errekondok bere *Bizi baratzea* liburua ere aur-keztuko du. Euskadi Irratiko 'Landaberri' saio ezagunean egiten duen antzera, baratzei, landareei eta, oro har, nekaza-ritzari lotutako herritarren dudak eta kezak argitzen ere saiatuko da.

Errematan, 70 euro tarta baten ordainetan

Gozokiak izan ziren Errematako protagonistak

GARAI M.O.

Joan zen domekan egin zuten Erremata, baserriko produk-tuen enkatea. Garain egindako etxeko tarta bat lortzeko, 70 euro ordaindu zituen herritar batek, eta, hain zuzen ere, go-zokiak izan ziren Errematako "produktu izarrak", Lazaro Mi-likua antolatzaileak azaldu due-nez. Tostadengatik ere antzeko kopurua ordaindu zuten.

Milikuaren esanetan, jende asko bertaratu zen, eta giroa ere ona izan zen. Baserritarrek era-

mandako 30 bat produktu-sorta egon ziren enkantean, eta 1.200 euro batu zituzten guztira. Di-ruaren erdia elizako konponke-tetarako erabiliko dute, eta bes-te erdia Caritasi emango diote.

Baserritarrek emandako 30 produktu egon ziren enkantean, eta 1.200 euro batu zituzten guztira

URTARRILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak


www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558




SALTSAN KATERIN.
EGUREN SALTAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.



COLOR PLUS.
INPRIMAGAILU
MULTIFUNTZIONALA
Epson eskaner eta inprimagailu multifuntzionala.



FORUM SPORT.
PULSOMETROA
Polar FT1 modeloia eta uhala. Iragazgaitza.



HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDA
Joseba Sarrionan-diaren "Lapur banden etika ala politika" liburua eta Esne Beltza taldearen "Esna" CDA.



EROSKI.
SPORTCAM
Kiroletarako kamera konpaktua. 95mm ultra compact size. Weather Proof.



ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA



PSIKOLOGIA



PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

UGAITZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA



ESTETIKA



OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

CA AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

keinuu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13



ODONTOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Biblioteka eta Askondo izango dira aurtengo proiektu nagusiak

EAJk eta PSE-EEk bozkatu dute aurrekontuaren alde; Bildu abstenitu egin da

IURRETA Aitziber Basauri
Bibliotekaren birmoldaketa (125.000 euro), Askondoren errehabilitazio osoa (475.000 euro) eta Santa Apolonia auzoa Orozketarako errepideagaz lotzea (150.000). Horrexek izango dira Iurretako Udalaren proiektu nagusiak, aurtten, eta 2016rako lotutako inbertsio atalaren ia %72 eroango dute. Atzo onartu zuen udalbatzak 5,9 milioi euroko aurrekontua—iaz baino %3,73 gehiago—; 1.050.000 euroko inbertsio atala jasoaz—iaz baino %27,12 gehiago—. EAJk eta PSE-EEk bozkatu zuten alde; Bildu abstenitu egin zen.

Gastu arruntak, eta Kultura eta Gizarte Ongizate arloko diru-laguntzek izandako igoerak

eragin dute aurrekontuaren igoera, inbertsioekin batera.

Hainbat zalantza

Aurrekontua urtarrilean onartzeagatik zoriondu ostean, eta udalaren “inbertsio gaitasunaz” jabe direla argituta, bai bibliotekarako bai Askondorako egitasmoekiko zalantzak agertu ditu Bilduk: “Zerbait egin behar dela argi dugu, baina, ez horrenbeste diru bideratu behar denik. Badiugu beste lokal batzuk egokitu daitezkeenak bibliotekako mugimendua gutxitzeko”. Askondorako inbertsio “potoloak” ere “dudak sortu” dizkie, “askotari-ko iritzia” jaso dituzte-eta.

Bestalde, herritarrei gorde-tako diru-atal baten falta ere

aipatu du Bilduk, “parte hartzea bideratuz”. PSE-EEk, berriaz, udaleko lanpostuen zerrenda osatzeko egin den lana azpimarratu du, aurrekontuan islatzeak duen “garrantzia” aipatuz. Bibliotekak inbertsio baten beharra duela ere esan du.

Biblioteka “modernagoa”

Bibliotekan “hormak bota eta espazioa zabalduko” dute. Totrikaguena alkateak azaldu duenez, “asko erabiltzen dira kultur etxea eta liburutegia; hori oso positiboa da. Horregatik modernizatu gura dugu”. Lanak udan hasi gura dituzte, biblioteka ixtea eskatuko lukete-eta. Askondon “herritarrentzat espazio bat errekupeatu” gura dutela dio.



Kultur etxeko bigarren solairu osoa hartuko du bibliotekak lanak amaitzean.

Taxi-azunea zerbitzurako txartela berrizteko epea zabalik dago

IURRETA Aitziber Basauri
Taxi-azunea zerbitzua erabiltzen duten iurretarrak txartela berrizteko behar dutela jakin eragin du Iurretako Udalak. Urtarrilaren 31ra bitartean dute txartela berrizteko aukera, eta, otsailaren 1etik aurrera, udalak emandako erabiltzaile txartel berria aurkeztu beharko diote taxi-gidariari.

San Sebastian, Bakixan

Bestalde, San Sebastian jaietan murgilduta daude Bakixan, eguenean Donien Atxa igo zutenetik. Asteburuan, hainbat ekitaldi izango dituzte: makailau txapelketa, danborrada eta Luhartz taldeagaz erromeria izango dira, bihar. Etzi, meza, bertsolariak, dantzariak eta umeen jolasak, besteak beste.

Leiz, Berriozabaleta eta Igurian, auzolanean

Herriko hiru bide auzolanean garbituko dituzte

ELORRIO Markel Onaindia
Herriko auzobideak garbitzeko beharrezkoa dena dokumentu batean jasoko du udalak, lanerako ordua heltzean, zer eta zelan egin argi edukitzeko. Proposamen hori, Gobernu Planeko 100 neurrietako bat da, eta udara bitartean garatuko duela esan du udalak. Baina, hiru auzotan, herritarren esku geratuko da ardura; izan ere, Leiz, Berriozabaleta eta Igurian auzolanean garbituko dituzte auzobideak. Udalak azaldu duenez, auzotarrak prest agertu dira lana burutzeko.

Auzotarren parte-hartzea indartzeaz gainera, udalari gastu gutxiago eragingo dio hiru auzoetako borondatezko lanak. Baina, ordainetan, auzorako diru-laguntzak eskainiko ditu

administrazioak. Beraz, auzotarren lanak aparteko saria edukiko du.

Gobernu Planeko 100 neurrietako bat da, eta udara bitartean garatuko duela esan du udalak

Toponimia, sarean

Bestalde, euskararen arloari lotuta, orain arteko ikerketetan batutako leku-izen edo toponimo guztiak www.elotop.net/euskara atarian eskegi dituzte. Interneten inguruan ezagutza gutxi duenak ere topatzeko moduan prestatu dutela esan dute arduradunek.

Emakumeek euskal dantzetan izan duten rolari buruz, berbaldia

BERRIZ A.U.

Datorren martitzenean, urtarilak 26, Oier Araolaza kazetari, antropologo eta dantzariak *Emakumea euskal dantzari* hitzaldia eskainiko du, Berrizko Kultur Etxean, 19:30ean. Dantza tradizionalan egon izan diren genero bereizketen gaineko azterketa egin du Araolazak.

Dantzari eibartarrak ANBOTOrri iaz eskainitako elkarrizketan azaldu zuenez, dantza tradizionala gizartearen isla da: “Gizartean aurkitu dezakeguna aurkitu dezakegu dantzari, lehen eta orain”. Bere berbetan, emakumeek “ia garai guztietan borrokatu behar izan dute debekuen, eta plaza publikoa monopolizatzeke gizonen ahaleginen kontra”.

Kapitalismoaren ondorioen buruzko hitzaldia, Zornotzan

ZORNOTZA P.B.

Gaur, 19:30ean, Jone Etxebarriak eta Joseba Permachek hitzaldi bat emango dute, Zornotzako Zelaieta Zentroan, kapitalismoak Euskal Herrian izandako ondorioen inguruan. Txitxarra kultur elkarteak izan da gaurko ekitaldia antolatzearen arduraduna.

Sortuk antolatutako emanaldian, independentzia ekonomiko eta sozialaren beharra aldarrikatu nahi dute. Helburu horri begira, berbagai izango dituzte XXI. mendeko mundu mailako egoera desorekatua Europa izanik aztergai nagusia, Espainiako estatuan krisi sakonak izandako eragina biztanleengan eta Euskal Herriko egoera ekonomiko eta sozialaren analisia.

katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Orbeak 175 urteko ibilbidea errepasatu du urteurrena ospatzeko ekitaldian

Iñigo Urkullu lehendakariak bertatik bertara jarraitu zuen ekitaldia



Iñigo Urkullu lehendakaria ekitaldiaren amaieran, 350 gonbidatuekin batera ateratako familia argazkian.

MALLABIA J.Derteano
Orbea bizikleta enpresak 175 urte egin ditu, eta, atzo, urteurrena ospatzeko ekitaldi jendetsua egin zuten Mallabian duten azpiegiturretan. Iñigo Urkullu lehendakaria eta txirrindularitza munduko jendea batu ziren ekitaldira, besteak beste.

Pedro Delgado, Igor Gonzalez de Galdeano, Samuel Sanchez, Marino Lejarreta, Roberto Laiseka eta Miguel Madariaga izan ziren ekitaldia bertatik bertara jarraitu zutenetako batzuk.

Iñigo Urkullu lehendakariak Aitor Bugallo txirrindularia gogoratuz hasi zuen hitzaldia; Orbeako langilea zen, eta joan zen astean hil zen, auto istripuan.

Orbea “55 herrialdetan presente dagoen enpresa globala da” jarraitu zuen lehendakariak: “Txirrindularitzak prestakuntza, ahalegina, eta talde lana eskatzen ditu, eta Orbea enpresak balio horiek guztiak dituela erakutsi diguzue”.

Jon Fernández Orbeako zuzendariak enpresaren balioak azpimarratu zituen atzoko ekitaldian. Hainbeste urtez bizi-rauteko gakoa “eraberritzeko eta eraldatzeko izan dugun prozesu konstantea” izan omen da. Esaterako, bizikletagintzan zentratu aurretik, armak egiten zituen Orbeak. Sozietate anonimo izatetik, kooperatibara aldatzea izan zen beste urrats esanguratsu bat.

Gizarte ikuspegiagaz lan egiten dutela azpimarratu gura izan zuen Fernandezek: “Gizarte justu eta solidarioago bat lortzeko gure aletxoak jarzen saiatzen gara”.

Santi Millan aktore eta aurkezle ezaguna Orbeako enbaxadorea da, eta berba batzuk esan zituen ekitaldiari umore ukitua emanez. Pedro Delgado txirrindulari ohia Seat-Orbea taldean aritu zen 1985ean, eta orduko bizipenak gogoratu zituen.

Bertaratutako denei, 175 urteei errepasoa egiten dien liburur mardula banatu zieten. Enpresako sail desberdinetarako bisita gidatuarekin amaitu zuten ekitaldia.

Mantenu lanak egiteko langile bi kontratatu guran

OTXANDIO J.D.
Otxandioko Udalak langile bi kontratatu gura ditu aldi baterako. Hain zuzen, martxotik maiatzera bitarteko hileetan beharko lituzkete bi langileak, eta horiek esleitzeko prozedura hasi dute. Horretarako, baldintza batzuk bete behar dira: esaterako, interesdunek Lanbiden alta emanda egon behar dutela jakinarazi dute. Edozein zalantza dutenek udaletxera jo dezakete informazio eta baldintza zehatzen bila.

Espeleologia Astea antolatu dute, lehenengoz

ABADIÑO I.E.
GEMA Espeleologia Taldeak antolatuta, hitzordu bi dakartz Aabadiñoko I. Espeleo Asteak. Batetik, Bilboko Mendi Film Festival jaialdian sarituri *Urzulo* filma emango dute, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Bestalde, Mañariko Askondo kobazuloan egindako aurkikuntzen inguruan berbaldia eskainiko dute Diego Garate eta Joseba Rios arkeologoek, urtarrilaren 28an, 19:00etan, Errotan.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



Egilea erantzule

2015ean eraildako emakumeen kopuru ofiziala 56 zen, baina 2016an handitu egin da kopuru hori, emakume baten eta zortzi urteko alabatxoaren heriotzen ikerketak izandako emaitzen argitan. Horrenbestez, matxismoaren biktima ofizialak 57 dira, biktimen seme-alabak, amonak eta amak ez baitira aintzat hartzen, urtero, urtarrilaren 1ean, hutsetik abiatzen den zorigaiztoko kontagailuan.

2016an, 5 emakume dira dagoeneko indarkeria matxistaren ondorioz hildakoak. Alde batetik, eraildako emakumeen kontagailua handituz doa pixkanaka, eta, bitartean, beste aldetik, urteko lehenengo adierazpen matxistak entzun ditugu, Toledoko artzapezpikuak pulpitutik botatakoak: “sarritan, erantzun matxista izaten da, aurrez emakumeak banatzeko eskatu duelako” eta “emakumeak erailtzen dituztenek emakumeen inposizioak onartzen ez dituztelako hiltzen dute”.

Hala ere, ez matxismoak, ez adierazpen matxistek ez dute inolako mugarik. Alemanian, Kolonia hirian, sexu-erasoen bolada baten ondorioz, ehunka salaketa jaso ondoren, poliziak eta hiriko alkateak jokabide-aholkuak eman zizkieten emakumei: “Beti dago tarte bat uzteko aukera, beso bateko tartea. Eta ez hurbildu arrotzengana edo konfiantzazkoak ez diren horiengana”, hala adierazi zuen alkateak, eta taldeka joateko, eta jaiaren beroan batekin edo bestearekin ez joateko gomendioa ere eman zuen.

Era horretako adierazpenak dira matxismoaren arrazoiak, haiek iraunarazten dute matxismoa. Esan ozen, argi eta garbi, hemen eta Alemanian, denok entzun eta ulertzeko moduan: Erantzukizuna ez da emakumeena, egileena baizik.

DURANGALDEA ASTEON

Surrandien kareta tailerra, bihar

DURANGO > Surrandien konpartsa duela urte batzuk berreskuratu zuten Durangon, eta geroztik, zapatu karnabalez berriro kaleetan ikusi ahal dira surrandiak eta hartza. Otsailaren 6an izango da jaia, eta karetak prestatzeko tailerra egingo dute, bihar, eta hilaren 30ean, 11:00etan, Merkatu plazaren atzeko lokaletan.

Tokiko monetari buruz, martitzeneko hitzaldian

ELORRIO > Tokian tokiko merkataritza eta ekonomia jasagarria bultzatzeko helburua du tokiko monetaren proiektuak. Bizkaian Ekhi moneta sortu dute, eta txanpon alternatiboaren berri emateko, Elorrixa ekologi taldeak hitzaldia antolatu du datorren asterako. Martitzenean, 19:00etan izango da, Iturri kultur etxean.

Txiki-Parka zabalik, bihartik aurrera

DURANGO > Bihartik aurrera, Durangoko Txiki-Parka martxan egongo da, Landako Gunean. 17:00etatik 20:00etarako ordutegiagaz, maiatzera arteko asteburuetan egongo da zabalik; ez beti, adibidez, otsailan, lehenengo asteburuan soilik egongo da. Landako Gune 2. moduluan instalatuko dute.

IRITZIA



Gutuna

Gutun honen bidez, Durangaldeko hainbat erreken egoera salatu gura nuke. Erreka hau, sasitzarekin, jausitako arbolekin, eta uraren bidea eragozten duten bestelako oztopoekin beteta dago. Ondorioz, errekek gainezka egiten badute, arrisku handia ekarriko du horrek. Inguruko udal arduradunei nire kezka helarazi diet, eta, esan didatenez, URA Agentzia da gai honen ardura duena. Diotenez, beraien baimenik gabe ezin daiteke ezer egin. Baina, egia al da erantzun hori? Ala errua beste bati botatzeko modu bat?

Hemendik, dagokionari zuzentzen natzaio, inguruko errekek bizi duten egoera salatzeko eta dagozkion neurriak har ditzala eskatzeko, berandu izan baino lehen.

Juan Luis García Ichaso (Durango)

✉ astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.



Kurutziagak Haur Hezkuntzarako proiektu pedagogiko berria jarri du abian

Kurutziaga Ikastolako arduradunek proiektuaren berri emango dute, bihar, ate irekien jardunaldian

KURUTZIAGA IKASTOLA

Kurutziaga Ikastola aitzindaria izan da hezkuntza munduan. Bide horri jarraituz, azken lau urteotan ere, berrikuntza ugari egin dira 0-3 urte arteko geletan. Espazio horretan egin diren aldaketekin umeen berezko gaitasunak aktibatzea izan da helburua.

Baina, Kurutziaga Ikastolan 0-3 zikloa sortu zenetik, argi izan dute Haur Hezkuntza 0-6 urte bitarteko etapa moduan hartu behar dela. Gaizka Uriarte Haur Hezkuntzako zuzendari pedagogikoak azaldu duenez, “pentsatzen dugu 0-3 eta 3-6 urte arteko mailak etapa bakar bat moduan hartu behar direla. Eta honek eraman gaitu, oraingoan, duela lau urte martxan jarri genituen

0-6 urteko geletako berrikuntzak egitera”.

Berrikuntzaren gakoa

Baina, berrikuntza zertan datza? Haurra ulertzeko eta begiratzeko beste era bat da, umearekiko begirada aldatzean datza, eta bertako hezitzaileen erantzuna egokitzean. Adin horretako umeek berezkoak dituzten gaitasunak adierazten dituzte. Uriartek dioenez, “adierazpen horiek jaso, eta sentikortasunez erantzutea da gure lana. Gaitasunak garatzeko testuinguru aberats bat eskaintzea, eta potentzialtasun hori haurrak askatasunez garatzea da helburua”. Orain arte, 0-2 urte arteko geletan martxan jarritako proiektua 3-6 urte arteko geletan ere abian jartzea

izango da hurrengo urratsa. Aldaketa hau ez da erronka makala izango. Izan ere, berrikuntza pedagogiko honek espazioaren antolaketa berri bat eragingo du. Horretarako, batez ere, 3-6 urte arteko geletan obrak egingo dituzte espazioa metodologia berrira egokitzeko. Ildo horretatik, espazioa ikaslearen hezi-

Haur Hezkuntzan egindako berrikuntza pedagogikoek 20 gelari eta 350 ikasleri eragingo die

keta prozesuan eragiten duen hezitzaile bat gehiago izango da. Ezagarri horiek kontuan izan-

da, aldaketa honek 20 gelari, eta 350 ikasleri eragingo die. Orain arteko esperientzia oso positiboa izan dela aitortu dute HHko arduradunek. “Oso pozik gaude emaitzagaz, etapakide guztiekin eraiki baitugu egindako guztia. Familien aldetik ere jaso ditugun iritziak oso positiboak izan dira”.

Egin Dagigun!

Proiektu pedagogiko berritzaile hau martxan jarri ahal izateko, baina, espazioaren berrantolaketarako finantziazioa beharrezkoa da. Horrela, Kurutziagak eta Ibaizabalek maiatzaren 29an antolatuko duten Ibilaldia 2016an batuko den diruagaz, Haur Hezkuntzako eraikina berrituko dute. Zaharberri-

tzearekin batera, berrikuntza pedagogikoan inbertituko dute. Baina, helburu ekonomikoak betetzeaz haratago, ikastolen balioak sustatu ditzan eta hezkuntza-ereduaren isla izan dadin, Ibilaldia 2016aren izaera definituko duen hausnarketa prozesuari ekin diote ikastolan. Nortasunari dagokionez, argi dute Ibilaldiko jaiak erakitzailea izan behar duela. Parte-hartzeak talde identitatea bultzatzea du xede, euskara eta euskal kultura bultzatzea, euskal identitatea berreskuratzea, alegia. Era berean, Ibilaldiaren formatuari buruz ere egin dute gogoeta. Ibilaldiko ohiko formatua ezbaian jarri, eta gaur egungo gizartearekin bat datorren formatu bat aurkitzeko erronkari heldu diote.

Ate irekiak, bihar

Kurutziagako arduradunek ate irekien eguna antolatu dute, biharko. Horrela, hitzordura-ko izena eman duten gurasoek Kurutziaga bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute.

KURUTZIAGA IKASTOLA
ezagutu gaitzazu!

0-18 urte bitarteko eskaintza!
MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!
URTARRILAREN 25etik OTSAILAREN 5era
www.kurutziagaikastola.eus

Bisita gidatuak urtarrilaren 23an. Deitu eta hartu hitzordua! 946 200 822

dagigun!

BILA ALEA 2016
GULIANGO



Kurutziaga Ikastolan jan-ohitura osasungarriak bultzatzen dihardute

Kurutziagako sukaldean, barazkiak sasoikoak, bertokoak eta ekologikoak izaten dira

Kurutziaga Ikastolan, jan-ohitura osasungarriak bultzatzen ari dira. Prozesua duela bi urte hasi zuten, guraso talde baten hausnarketari esker. Xedea zen, ahal zela, produktuen kalitatea hobetzea, beti ere, kalitatea gertutasunarekin lotuz. Ondorioz, Kurutziagako sukaldean, barazkiak sasoikoak, bertokoak eta ekologikoak izaten dira. Neurri honek, zentroko jantokian jaten duten 700 lagunei eragin die.

Elikaduraren inguruan hausnartzen hasi zen guraso taldeko

“Umeek jaten duten menua hobetu egin da, bai oreka aldetik eta baita kalitate aldetik ere”

kideek diotenez, “menua hobetu egin da, bai oreka aldetik eta

baita kalitate aldetik ere. Orain, dilistak, arroza, pasta eta oliba olioak ekologikoak dira. Gainera, Urko Rodriguez ikastolako zuzendariak azaldu duenez, bi urteko prozesuaren ostean, “lortu dugu inguruko baserritarrek harremana egitea, eta orain, bertoko baserritarrak dira jantokian ematen diren barazki guztien ekoizle.

Elikaduraren inguruan egin dako hausnarketa honetan, *ca-*

terin zerbitzua ematen duen Aulaneke arduradunek azaldu dutenez, “eredu hau ikastolaren neurriara egindako lana izan da, Kurutziagarako bereziki prestatua”. Gaineratu dutenez, ezaugarri askok bat egin behar dute horretarako: eskulana, langileak, eguneroko operatiboa... Jarrera irekia izan behar du sukaldeko taldeak. Malgutasuna funtsezkoa da jantokiko beharrezane erantzuteko”.

Kurutziagako sukaldaria ere, Mikel Atutxa, pozik dago aldaketarekin. Berdura freskoa izanda, kalitatea hobea da. Gainera, bertoko nekazariak erosten diegu, eta batzuk ikasle ohiak dira, beraz, alde horretatik ere ekimen ona dela esango nuke”.

Jon Bereziartua eta Alazne Intxauspe baserritarrak ikastolaren hornitzaileak dira. Sukaldariarekin astero berba egiten dute. “Taldeen funtzionatzen dugu, bestela, hau ezingo litzateke posible izan. Inguruko baserritar batzuekin lan egiten dugu. Eredu aldaketa hau gizarte osoarentzat ona dela diote baserritarrek, “ez bakarrik ekologikoki, baita ekonomikoki eta sozialki ere”.

DBH-ko ikasleentzat, Euskal Curriculumua bizkarrezur

EKI proiektuaren barneko ikasmateriala aitzindaria da European



EKI proiektua ikasmaterial berri eta berritzailea da. Euskal Curriculumua garatzen du, konpetentzietan oinarrituta eta integrazioaren pedagogiaren bitartez.

Dagoeneko, ez da nahikoa jakintza akademikoa eskuratzea. Edozein bizitza-egoeratan kon-

arloek, EKIGunea web orrialdea dute osagarri gisa, non euskarri digitalak biltzen diren. Bi euskarriak ez dira banaka aurkezten, elkarren osagarri dira, ikasleek IKTren konpetentzietan eta eza-gutzan sakon dezaten.

Lau osagai

EKIk lau osagai kurrikular ditu. Ildo horretatik, proiektua ondorengo ideietan oinarritzen da: konpetentziak landuz ikasi eta irakasten da; euskal kultur ibilbidean eta curriculum ofizialetan oinarritzen da; ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikasten eta egiten jakiteko; eta euskara ardatz duen hizkuntzen planteamendu integratua egin da.

Proiektu aitzindaria

EKI proiektu aitzindaria da European. Azken batean, XXI. mendeko hezkuntza berritzeko apustu euskalduna da EKI.

EKIk, pertsonen garapen osoa lortu ahal izateko oinarri sendoak finkatzea bilatzen du

petentzia izatea lortu behar du ikasleak; pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzten, norbera izaten eta egiten eta ekiten jakin behar du.

EKI proiektuaren material hau, euskarri bitan aurkezten da: paperean eta digitalean. Era berean, paperean lantzen diren



Esther Oliver | Bartzelonako Unibertsitateko Irakaslea eta CREA ikerketa zentroko kidea | Bartzelona, 1975



“Umeei oso argi azaldu behar diegu zer den onargarria eta zer ez”

Familiaren eta eskolaren arteko baterako lana oso garrantzitsua da onartezinak diren jarrerak ekiditeko

> BERBAZ Aitziber Basauri
Bartzelonako Unibertsitateko CREA Desberdintasunak gailentzeko teoria eta praktiketarako Ikerketa Zentro Berezikokidea da Esther Oliver. ‘O biolentzia 0 urtetik’ hitzaldia eskaini du Durangon, Zabalarra Eskolak gonbidatuta.

Umeen arteko elkarreragina arinki hartzeko joera dugu? Erasoa, txarto tratatzea, abusua... adin oso goiztiarretan eman daitezke. Ume txiki batzuek, ez denek, jokaera oso oldarkorra erakutsi dezakete, eta, horren aurrean, helduok dugun jarreran dago gakoa: askotan, ez diogu garrantzirik ematen, eta ondorioz, umeen zenbait jokaera agresibo edo bortitz naturalizatu egiten dira. Horrek sozializazio prozesuan eragiten du. Umeek helduekin dituzten elkarreraginen bitartez ikasten dute guztia; helduen erreakzio bat edo bestea izango da jasoko duten mezua edo ikaskuntza. Berdinen arteko erasoak ohikoak izan daitezke, ikerlariek dioten lez, gakoa helduok hartzen dugun jarreran dago; umei helarazitako mezuan.

Umeen jolasak dira batzuentzat. Badago marra gorririk?

Erasoak, min egitea.. ez dira jolasak. Garrantzitsua da bereiztea. Oso garrantzitsua da edozein eraso mota, besteari gustatzen ez zaion tratua, lehenbailehen gelditzea; jarrera koherentea izatea. Horrela dio nazioarteko komunitate zientifikoak. Marra gorria? Edozein abusu, besteari min eragiten dion edozein jarrera geldiarazi behar da. Bestea ondo tratatzeko, min ez egiteko moduak ikasi behar dira; albokoa errespetatzen. Lehenbailehen eragitea, gertatzen utzi gabe, hori da premisa.

Zeintzu arazo sortu daitezke horren ume txikien artean?
Adibidez, inolako oinarri zientifikorik ez duten hainbat artikulu daude 0-3 urteko eskoletan, haginkadak eta musuak parekagarriak direla esatera datozenak; berba egiterik ez duten umeen adierazteko erak direla diotenak. Nolanahi ere, haginkadak eta musuak ez dira gauza bera; ez denak, baina, badaude haginka egiten duten umeak, eta erakutsi egin beharko zaie. Elkarreragin txiki hori hasieratik zaindu behar da, horien bitartez sozializatzen dira eta umeak. Ezer ez dela gertatu ikusiz gero, eta arreta lortuz gero —

batzuetan errieta eginda ere lortzen dute, erasotua albo batean utzi dugulako negarrez— berean jarraituko du. Nazioarteko ikerketen arabera, lehenengo, biktimari jarri behar zaio arreta, babesa eman. Oinarri zientifikoko gabeko beste jokaera bat da, niretzat okerra, eraso egin dion beste horren musua jasotzera derrigortzea umea.

Nola da hori?
Pentsaezina zaigu hori helduen artean. Ez genuke inoiz onartuko, baina, umeekin egiten dugu. Irizpide argiak eman behar dizkiegu: jo egin badu, ez du zertan jarraian haren musurik onartu. Umeentzat kontrajarriak dira gure mezuak, nahastu egiten ditugu. Oso argi azaldu behar zaie zer den onargarria eta zer ez.

Zeintzuk pautu jarraitu behar dituzte irakasle eta gurasoek?
Eragin, esku-hartu eta gertatzen ez utzi. Hori da lehenengo eta behin egin behar duguna, nazioarteko ikerkuntzen arabera. Ondoren, erasotzaile edo inoiz oldarkor jokatu duenaren aurka egin. Horrek ez du esan nahi estigmatizatzea, agian, bila ari den arreta hori ez ematea baidiz. Biktimarentzat izan behar

“*Erasoa, txarto tratatzea, abusua, adin oso goiztiarretan eman daitezke*”

da arreta. Horri lagundu behar zaio; baita gertatutakoa azaltzen ere, izan liteke eta ez ausartzea. Batzuetan, zigortuak sentitzen dira (salataria delakoan, taldearen babesik ez duelako...). Azkenik, beste umei beti jarrera bat hartzera lagundu behar zaie: beti biktimaren alde jartzera, erasotzailea baztertuz.

Familian, nola landu behar da?
Familiaren eta eskolaren baterako lana oso garrantzitsua da. Irakasleek umeen ikaskuntza prozesuari buruz duten ezagutza baliatuz, euren ekarpena egin dezakete, eta familiei lagundu dezaten lagundu behar zaie. Familiek asko dakite euren seme-alaben bizitzaren inguruan; seme-alabentzat zer gura duten eta zer ez badakite. Ari dira lanean eskolan batzuetan —irakasleak, familiak eta ikasleak batera— onartuko ez diren

arau edo jarrerak finkatzen. Horretan, paper garrantzitsua jokaten dute familiek. Eragile guztien artean komunikazio gehiago izanik, are eta errazagoa izango da jarrera hauek identifikatzea eta era eraginkorrean esku-hartzea.

Hau guztia ondo ez kudeatzeak ondorio larriak ekarri ditzake? bullinga, genero biolentzia...
Umeen sozializazio faktoreetan asko eragiten du. Bihozgabea goak bihurtzen gara; hobe dela isilik egotea ikasten dugu, etsitzea. Denborarekin, ondorio oso larriak izan ditzake egoerak. Hor dira biolentziaren normalizazioak sortutako arazoak: kontrola, abusua, inor txarto tratatzea, txarto berba egitea... normalizat jotzea.

Ipuin klasikoetan izan daitekeen sexismoa genero-biolentziagaz lotu daiteke?
Gizarte patriarkal honen ezagutza bat da sexismoa; bestelako kontua da genero biolentzia. Termino hauek nahasteak ondorio larriak izan ditzake. Burutazio batetik sortutako loturak dira askotan, eta gai oso serioak dira. Nazioarteko literatura zientifikoa ez dugu topatu maitasun erromantikoa eta genero biolentzia lotzen dituen ebidentzia zientifikorik. Kontrakoa. Sentimenduetan oinarritutako harremanak biolentziaren erakarpenerako alternatiba direla diote ikerketa batzuek; neska-mutilak abusuzko erlazioetan ez sartzeko era izan daitekeela.

> LITERATURA Itsaso Esteban
Ametsen Liburua argitalpenaren koordinazio lanetan ibili den Jokin Urain (Mendaro, 1959) idazle eta preso ohiak, eta Oier Gonzalez durangoko preso ohiak aurkeztuko dute liburu hori Durangoko Hitz Liburudendan, urtarrilaren 28an. Liburuan parte hartu duen deportatu baten, preso baten eta errefuxiatu baten audioak emango dituzte, lanaren sorkuntza prozesuaz ariko da Urain, eta bere parte hartzeaz jardungo da Gonzalez durangarra.

Liburuko orrietako bat betetzen du Oier Gonzalezen lanak. 2009an, Liongo espetxean kartzelaratua zegoela idatzitako testu bat eta kartzelako dutxetan ezkutuan egindako argazki bat aurkeztu zituen Gonzalezek *Ametsen liburua* libururako.

Kartzelan zegoela irakurritako arranoaren parabolaz gogoe-ta egiten du testuan Gonzalezek. Kartzelan zegoela, etorkizunera begira egindako bere proiektzioa, bere kezken kontakizuna da arranoaren metaforaren bitartez egin zuena. “Bizitzen jarraitzeko, bere mokoa eta lumak erauzi behar ditu bere bizitzako fase batean arranoak, berriak jaio daitezen”, kontatu du Gonzalezek. “Kartzelak nire izaera zer punturaino eraldatuko zuen planteatu nuen testu horretan”. Liburuko autorretratuak ere is-



Kartzela eta erbestea bizi izan duten 500 ahotsen ‘Ametsen liburua’ aurkeztuko dute

Urtarrilaren 28an, 19:00etan, Durangoko Hitz Liburudendan aurkeztuko dute ‘Ametsen liburua’ argitalpena

latzen duen espazio biolento horretan bizirauteko, kalean zeuzkan “luma koloretsuak” kendu beharra sentitu zuela azaldu du Oier Gonzalezek. Eta luma horiek kentzeak bere etorkizunean zelan eragingo zion galdegin zio-la bere buruari.

2011n irten zen Oier Gonzalez kartzelatik, eta orain, kartzelaurreko bere “luma koloretsuak

berreskuratzeko lanetan” dabilela azaldu du: kartzelako espe-



OIER
GONZALEZ

rientziaren traumak utzitako arrakalak kudeatzen ikasten.

Ia mila orriko lana da *Ametsen liburua* (960 orrikoa, zehatz esateko), eta bertan daude bilduta azken 50 urteotan espetxea edo erbestea bizi izan duten hainbat herritarren ekarpenak: 426 euskal presok, preso ohik, errefuxiatuk eta errefuxiatu ohik sortutako lanez osatuta dago *Ametsen liburua*. Askotariko artelanak egin dituzte liburuko

parte-hartzaileek; badaude margolanak, idatziak, eskutitzak, bertsoak, zein poemak ere. Adierazteko, gustuko formatua balia-tu du partaide bakoitzak.

“500 ahotsak egindako kontakizun politiko-afektiboa da liburukoa”, azpimarratu du Oier Gonzalezek: Euskal Herriko gatazkan espetxeak utzi duen arrastoa jasotzen duen obra.

Desore laukoteak irabazi du Durangaldeko Maketa Lehiaketa

Urtarrilaren 15ean jokatu zuten musika lehiaketa horren 3. edizioko finala

> MUSIKA Itsaso Esteban
 Desore Arratiako taldeak irabazi du Durangoko Maketa Lehiaketaren hirugarren edizioko sari nagusia: 1.500 euroko saria.

Lehiaketako epaimahaiak nabarmendu duenez, “teknikoki talde ona” da Desore, eta eszenatoki gainean giro polita sortzen daki, gainera.

Rock alternatiboa, hard rocka eta rock & rolla uztartuz egiten duten musikaz gainera, Desore taldeak eskaintzen duen “irudi potentea eta zaindua” ere

azpimarratu du Durangaldeko Maketa Lehiaketaren III. edizio-ko epaimahaiak.

Urtarrilaren 15eko finalean, Desore arratiarrekin batera, Durangoko Yellow Marsupials eta Hamaika Ikusteko Jaioak taldeek jo zuten.

Beste bi sariak

Lehenengo sariaz gainera, beste sari bi ere eman zituen Durangaldeko Maketa Lehiaketako

epaimahaiak. Hamaika Ikusteko Jaioak taldeak, 6+7 izenburuko kantagaz, jaso zuen euskarazko kantarik onenaren saria (500 euro).

Bestetik, uztailean Zornotzako jaietan kontzertua eskaintzeko aukera irabazi zuen Yellow Marsupials Durangoko taldeak. Epaimahaiaren azpimarratu zuenez, “etorkizun oparoa” izateko ezaugarriak ditu musika talde horrek ere.



Desore laukote arratiarra.



Euskarazko kantarik onenaren saria, eta Zornotzako jaietan jotzeko aukera ere jokoan izan ziren lehiaketaren finalean.



'Walls' filmagaz amaituko dute Zornotzako urtarrileko zinekluba

Pablo Iraburu filmaren zuzendaria gonbidatu dute pelikula aurkeztera



Urtarrileko zinekluba ixteko, martitzenean emango dute 'Walls', Zornotza Aretoan.

> ZINEMA Itsaso Esteban
Pablo Iraburuk eta Migueltxo Molinak egindako *Walls* filmak itxiko du KINE zineklubak Zornotza Aretoan antolaturiko *Euskolabel* zikloa. Urtarrilaren

26an, 20:00etan, emango dute *Walls*, Zornotza Aretoan. KINE zineklubean ohi duten eran, hiru film eman dituzte urtarril honetan ere, Euskal Herriko ekoizleenak, guztiak.

Berlingo harresia desegin zutenetik, hori bezalako harresiak iraganeko kontua direla pentsa dezakegun arren, sekula baino murru gehiago daude munduan egun, eta errealtate hori da

Walls filmaren oinarria. Harresi horien alde bietara bizi diren pertsonen istorioak ditu filmak ardatz: euren esperantza, beldur, pentsamendu eta emozioak daude Iraburu eta Molinaren filmeko kontakizunaren zentroan. Zornotzako emanaldiaren aurretik, berbaldia eskainiko du Iraburu zuzendariak.

Harresien alde bietara bizi diren pertsonen istorioak ditu Iraburu eta Molinaren 'Walls' filmak ardatz

Euskal Herriko zinegileen beste bi lanen erakusleio ere izan da Zornotzako zinekluba, urtarrilean. *Jai Alai Blues* eta *Pikadero* eman dituzte, eta lan horien zuzendari eta aktoreak gonbidatu dituzte.

Otsailerako *Risoterapia*, eta martxorako *Emakumea* izenburuko zikloak prest dituzte: Hiruna film emango dituzte ziklo bakoitzean: *Granma*, *Pride*, *Me and Earl and the dying girl*, *La adopción*, *Paulina*, eta *La Novia*.

GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediagako kidea



Zorionak ala mila esker?

Bukatu da 2015. urtea, eta haregaz batera Gerediaga Elkarteak 50. urteurrena. Urteurrena dela eta, urte osoan hainbat kultur ekintza eta oroimen ekitaldi burutu dira. Geldiguneak ere izan dira elkartearen etorkizunari buruz gogoeta orokorra egiteko.

Gerediagak, besteak beste, liburu bi plazaratu ditu, 50 urteotan burutu duen bidea biltzeko. Lehena, Elkartearen historia orokorra biltzen duena, eta bigarrena, Azokaren iragana.

Abenduaren 27an Gerediagako Foru Gunean ospatu genuen Merinalde Egunean, ekitaldi osteko lagunarteko berriketaldian, andra bat hurbildu, eta liburuok irakurritakoan harrituta gelditu zela azaldu zigun. 50 urteotan gerediagatarrek eskualdearen alde egindako lan eskergagaz harrituta.

Andraren harridurarako, Gerediagaren lehen garaietatik bazkide den pertsona batek haxe erantzun zion:

-Dirudienez, denak ez dira iritzi horretakoak.

-Nola esan dezakezu hori?

-Badakizu elkarrekin ez duela urte osoan instituzio, elkarte edo erakunderen baten zorion edo esker oneko gutunik jaso? Ez oroimen aipamenik, ez gonbiterik jai hasierako txaplogorik jaurtitzeko, edo antzeko ekitaldietako protagonista izateko?

Hain harrituta ikusita, animoak eman genizkion, esanez gerediagatarrok eskualdearen alde lan egiten dugula, eta ez "berba gozoak" jasotzeko, nahiz eta horiek gustukoak izan, eskertzeko eta animoa emateko beharrezkoak ere badira eta. Honelako egunetan, inbidia sana izaten dut hainbat kirolek jasotzen duten arreta ikusita. Dena dela, mila esker eta urte berri on!

Askotariko interesak asetzeko tailerrak, Durangoko liburutegian

Gazteentzako komiki tailerra eskainiko dute, hiruhileko honetan, lehenengoz

> TAILERRAK Itsaso Esteban
Ume jaioberrietatik hasi eta kulturzale edadetuenetaraino, literaturari loturiko askotarikoa gaitan sakontzeko aukera

eskaintzen du Durangoko Udal Liburutegiaren programazioak. Urteko lehenengo hiruhilekoari begira, urteetan arrakasta izan duten proposamenak, eta hain-

bat berrikuntza aurkeztu dituzte. Lehenengoz martxan ipini dutenen artean dago, esaterako, 9 eta 14 urte arteko gazteei zuzenduriko *Ni naiz protagonista!* tailerra. Anartz Aranguenak gidatzen du tailerra, eta joan zen astean egin zuten lehenengo saioa. Oraindik ere eman daiteke bertan parte hartzeko izena.

Durangoko Liburutegiaren programazioan nobedadea da, baita, urtarrilean hasi den idazketa tailerra. Dozena bat lagun dabilta tailer horretan, eta beste horrenbeste Miriam Peña eskaintzen duen gurasoentzako ikastaroan. Umeentzako ipuinetako irudiak aztertzen dituzte Peña durangarragaz. Erabil-

tzaileek tailer horiei egin dieten harrera azpimarratu dute Liburutegiko arduradunek.

Marc Ambit Fernández katalanak Durangoko Liburutegian eskainiko dituen telebistako seriei buruzko saioak ere bereziak izango dira. Otsailaren 4an eta 5ean, 18:30etik 20:30era, izango dira hitzordu horiek, eta izena eman beharra dago parte hartu ahal izateko.

Telebistako seriei buruzko bi saio eskainiko ditu Marc Ambit Fernándezek, otsailean, Liburutegian

Dagoeneko urterokoak bilakatu diren beste hainbat proposamen ere luzatu dituzte urteko lehen hiru hilabeteetarako, Durangoko Liburutegitik: martxan dira irakurketa klubak, ipuin kontaketa saioak, edo berbaldi zikloak ere, esaterako.



Angela Arboleda ipuin kontalari ekuadortarra gonbidatu dute martxorako.

Zergaitik Jamil?

Tartean Produkzioak

Urtarrilaren 24an
19:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUNEAK
DURANGOKO UDALA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

URTARRILAK 22
22:30ean
QUEQUE
BAKARRIZKETA

Live And Beat
URTARRILAK 23
00:00etan
FLUOR PARTY
JAIALDIA

URTARRILAK 28
20:00etan
KANTALAGUN
KANTALDIA

ZERGAITIK

SAN ANTONIO ? IKASTETXEA



Irakasleon Kooperatiba

Balbino Garitaonaindia 3, DURANGO / T.94 681 67 76
www.sanantonio-santarita.com / ikastetxea@sasrik.com



INSTALAZIO BERRIAK

FAMILIENGANDIK GERTU

ALEMANA/FRANTSESA/INGELES

DURANGOGAZ KONPROMETITUTA

19 ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA

METODOLOGIA BERRITZAILEAK

DIRU LAGUNTZAK



**150
URTE**

0
1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16 urte

Aurrematrikula Zabalik
urtarrilak 25 - otsailak 5

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke, eta gozatu abantaila eta deskontu hauek:



DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > - %10 altzari eta osagarrietan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

- > -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 10 Dippner oinetakoetan.
- > -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.

Anbotorenlagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
 946 816 558

f Anboto komunikabideak

t @anboto

Beteranotasuna eta gaztetetasuna, Tabirakon funtzionatzen duen koktela

Tabirako-Baqueko emakumeek igoera faserako postuan ekingo diote ligako bigarren itzuliari, bihar. Beterano eta gazteen artean belaunaldien arteko bloke indartsu eta solidarioa osatzea lortu dute



Tabirako Baqueko emakumeen zein gizonen taldeak onenen artean dabilza.

> KIROLA J.Derteano

Tabirako Baqueko emakumeen taldeak Euskadiko Lehenengo Mailako bigarren itzuliari ekingo dio, bihar. Helburua orain arteko moduan jarraitzea da, taldea maila handian dabilelako. Igoera fasea jokatzeko eskubidea ematen duen bigarren postuan kokatuta dago, hamar garaipen eta porrot birekin. Beteranoz eta gaztez osatutako taldea da, eta

belaunaldien arteko talka hori oztopo beharrean, irabazteko formula bihurtu dute: “Funtzionatzen duen koktela da”, dio Jesus de Vicente entrenatzaileak.

Belaunaldien arteko desoreka ez da ezohikoa harrobian oinarritzen diren klubetan. Baina gabezia dirudiena bertute bihurtzea “taldeagaz konprometituta” dauden jokalariei esker lortu dute.

Adibide moduan, Marina eta Nuria Maortua ahiztek hamarkada bat inguru daramate taldean, eta gazteetatik igotako Leire Intxausti durangarrak 18 urte ditu oraindik: “Beteranoek taldeko pisua daramate, eta gazteenak ondo eta eroso sentitu daitezen saiatzen dira. Gazteek, berriz, ikasteko eta lanerako gogo handia erakusten dute. Horik sortzen den blokea da lortu

ditugun emaitzetara eraman gaituena”.

Konpromiso hori beharrezkoa dute taldeko gabezia nagusiari aurre egiteko: altuera falta. Ezin dute errebotean agindu, eta “abantailak beste modu batzuetan ateratzen saiatu behar dugu. Kantxa osoan presionatu, eta erritmo altuan jokatu behar dugu. Aurkariak jaurtiketak deseroso egin ditzaten saiatzen gara”. Momentuz, emaitza onak eman dizkie jokamolde horrek, eta punturik gutxien jaso duten taldea dira. Baina intentsitate horri denboraldi amaiera arte eusteko kapaz izango ote dira? De Vicentek baietz uste du: “Taldea zabala dugu, eta ez dut uste alderdi fisikoa handicap bat izan behar litzatekeenik”.

Gizonak ere sasoian

Tabirako Baqué gizonen taldea ere maila handian dabil. Hirugarren tokian daude, eta, bihar, 19:00etan, lehen itzuliko azken partidua jokatuko dute, Durangon, Fundacion 5+11 talde arabarraren aurka.

Zubizarreta Bizkaiko xakelaririk onena, 11 urte gaz

> XAKEA J.D.

Maddi Zubizarreta Landera 11 urteko elorriarrak Bizkaiko xake txapelketa irabazi du emakumeen maila absolutuan. Hamabi lehiakide batu zituen Bilboko finalak, eta batzuek bikoiztu egiten zuten Zubizarreta adinean. Bi-hiru faboritu nagusiak falta ziren arren, horrek ez du elorriarraren lana orbantzen: jokatutako bost partidak irabazi zituen. Bere ibilbideko lehen txapelketa zuen, beharrezko adinera helduta, xakelari federatu berria delako Zaldi Baltza taldeagaz.



Eiser-Inforlur, baliabide gehiago denboraldirako

Zazpi ziklistek osatuko dute 23 urtez azpiko taldea

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Duranguesa txirrindulari elkarteak 23 urtez azpiko Eiser-Inforlur taldea sortu zuen, iaz, gazte mailako ziklistei afizionatuaren aritzeko aukera eskaintzeko. Baliabide eta txirrindulari gutxi izan arren, errepidean izan ziren denboraldi osoan. Aurten, azpiegitura sendagoarekin eta gazte mailetatik igotako ziklistekin indarberrituta ekingo diote bigarren denboraldiari, otsailean.

Iaz, hiru txirrindularigaz hasi ziren, baina denboraldia hasi eta gutxira, Gartzten Elejabarrietak taldea utzi egin behar izan zuen. Gazte mailan izandako eroriko batetik ez da erabat errekuiperatu, eta txirrindularitza uztea erabaki du. Beste Alde La Tostadora taldeko zuzendari ibiliko da aurten. Aurten, zazpi txirrindularik osatuko dute

Eiser-Inforlur taldea. Iazko hirukotetik Jon Munitxa abadiñarrak jarraitzen du. Taldearen helburu nagusiari jarraituz, beste lau txirrindulari Beste Alde La Tostadora gazteen taldetik datoz: Julen Solaun, Iñaki Arakistain, Aritz Oleaga eta Xabier Gutierrez. Zazpikotea Lan-

Gazteen taldetik Julen Solaun, Iñaki Arakistain, Aritz Oleaga eta Xabier Gutierrez batu dituzte

der Etxebarriak —DemoBike taldetik etorrita— eta Lander Lópezek —Cafes Baqué taldetik— osatzen dute.

Aurten, Euskaldun Torneo lehiatuko dute, eta Belgikan nazioarteko lasterketa batzutan ariko dira.

Buskantza-Sasikoa derbia, bihar, Elorrioren

> ARETO FUTBOLA J.D.

Elorrioko Buskantzak eta Durangoko Sasikoak derbia jokatuko dute, zapatuan, 17:45ean, Elorrioko udal kiroldegian. Hirugarren Mailako lehen itzuliko azken partidua izango da. Azken bigarren tokian kokatuta, Sasikoak garaipena behar du behetik irteten hasteko, baina, horretarako, lehen itzuli osoan

Sasikoak puntuak behar ditu behealdetik irteteko, baina lehen itzuli osoan ez du kanpoan irabazi

lortu ez dutena lortu beharko dute: etxetik kanpora irabaztea. Elorrioko Buskantza, aldiz, sailkapenaren erdian dago, behealdetik goialdetik baino gertuago. Maila berean, Berrizko Prieson Break bigarren dago, lidertza-tik hiru puntura.

> AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Aretxabaleta

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Erandio

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

Iurretako - Arratia

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA

Zaldua - Abadiño

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA

Zorrontzako - Ezkurdi

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

BIGARREN ERREGIONALA

Berriz - Loiola-Indautxu

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Durangoko Bikainak - Elorrio B

· Domekan, 12:00etan, Arripausuetan.

> ARETO-FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Prieson Break - Ostadar

· Zapatuan, 16:50ean, Berrizburun.

Elorrioko Buskantza - Sasikoa Durango

· Zapatuan, 17:45ean, Elorrioko udal kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Elorriko Txiki - Urduliz

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibeltz B - Pozgarri Adarve B

· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.

Mallabia B - Kukuia B

· Domekan, 17:00etan, Elorrioko kiroldegian.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Nissan Gauria - Avia Eibar

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

> SAKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (Gizonak)

Tabirako Baqué - Fu8bdaciun 5+11

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Paules Basajaun

· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA (Gizonak)

Zornotza - Bilbao Berrio Otxoa

· Domekan, 20:00etan, Ixerbekoan.

BIGARREN ERREGIONALA (Emakumeak)

Zornotza - Erandio

· Domekan, 16:00etan, Ixerbekoan.

> DURANGOKO HERRI KROSA

Urtarrilaren 31n, Durangon. 10 eta 5 kilometroko banda.

Izen-ematea: apukosport.com
10 euro aurretik. 15 euro egunean.

Hiru urte dira begizkoa apurtu, eta Abadiñok derbia irabazi gura dio Zalduari

2013an Maila Gorenera igo zirenetik jokaturako derbiak berdinketan edo Zalduaren garaipenagaz amaitu dira



Abadiño futbol taldea Maila Goreneko igoera postuan kokatuta dago.



Zalduak hiru garaipen eta berdinketa bat lortu ditu azken lau jardunaldietan.

> FUTBOLA Joseba Derteano
Abadiñok ez daki Maila Gorenean Zalduek mende hartzea zer den. Talde biak batera igo ziren 2012/13 denboraldian, eta harrezkero jokatu dituzten bost derbietatik hiru Zaldibarko taldeak irabazi ditu, eta bi berdinketan amaitu dira. Zapatuan, 17:00etan, estatistika txar horri amaiera jartzeko beste aukera bat izango dute abadiñarrek, elkarren kontrako derbia dutela Zaldibarko Solobarrian.

Aspaldiko urteetako derbi-erakargarriena da. Maila Gorenera igo zirenetik, sailkapenaren erditik behera ibili izan dira, aurtien arte. Talde biak goiko postuetan dabilta: Zalduek seigarren, eta Abadiño hirugarren, Ohorezko Mailarako igoera postuan. Lau puntu daude bien artean. "Abadiño taldeak puntu batera geratzea sari handia da, eta hiru puntuen bila goaz", adierazi du Zalduako entrenatzaile Unai Letonak.

Abadiñoko entrenatzaile Gartzen Telletxeak taldea oro har "joko ona" egiten ari dela dio. Ez da partidua aurretik berotu zalea: "Azkenean futbola kirol bat da. Zaleek ondo pasatu dezaten saiatzea da helburua".

Bigarren itzuliari hasiera emango dion partidua da. Abadiñok baditu itxaropentsu egoteko arrazoiak. Golik gehien sartu duen bigarren taldea da: Jokin Idirin eta Luken Perez dira goleatzaile nagusiak, zazpina golekin. Gainera, Zalduek askorekin dator: lesioen edo lan kontuen eraginez, 16 jokalaririk erabilgarri bakarrik dituzte.

Zalduak ere baditu derbiaren aurrean positibo izateko arrazoiak. Azken lau partiduetatik hiru irabazi eta bat berdinduta, bolada onean daude, Abadiño pataldi txikian dagoen bitartean: azken hiru jardunaldietan ez du irabazi. Mailako laugarren goleatzaile onena ere badute: Javier Castrillo, 9 golekin.

ADITUAREN TXOKOA

KOIKILI LERTXUNDI

Futbolaria eta enpresaria



Epaileak epaile

Beti dira bereziak Athletic vs. Bartzelona norgehiagokak, kopako kanporaketak izanik, oraindik bereziagoak. Duda barik, kutsu propioa daukate, gau handien aurrekariak ugariak baitira. Eta aurrekariak mintzo, kanporaketa honek badu bere xarma. Batetik, 10 egunetan, udan bezala, 3 aldiz elkar topoko egingo dutelako. Bigarrenez, super-kopako tituluaren lorpena denboraldi honen hasieran izan zelako. Azkenik, epaileen lana luparekin begiratu izango zelako, batez ere katalanen aldetik, hainbaten harriturarako.

Eta, zentzu honetan, liga-kopako baldintzatuaren ondoren, harritzekoa iruditu zitzaidan Luis Enrike, prentsa agerraldian inork epaileari buruzko galderarik egin ez zionean, oso arduratua egotea epaileen izendapenarekin. Izan ere, epaile honekin, Espanyolen aurkako kanporaketa aise gauditu ondoren, eta ligako 11 partidetatik 9 irabazi eta 2 berdinketa lorturik, zeren beldur zen?

Egia esan, Athleticentzat egoera honek badu irakurketa positiboa, munduko talderik indartsuenak horrelako trikimailuetara jo behar duenean, errespetatzen zaituen seinale izan ohi delako. Hori bai, errespetua zelai barruan irabazi behar da, iraganeko lorpenetan lagundurik eta aukera berrietan neurria emanez. Beraz, izan dezagun konfiantza talde honetan, oraindik aukera baitago kanporaketari buelta emateko.

Krosean bost txapelkun dituzte Durangaldeak

Berrizen Bizkaiko txapelak banatu ziren

> KROSA J.D.

Berrizko krosak Bizkaiko aurtengo txapelkunak erabaki zituen joan zen asteburuan, eta eskualdeko korrikalariak protagonista izan ziren, maila askotan. Guztira, 16 domina irabazi zituzten, eta horietako bost urrezkoak izan ziren.

Gizonen elite mailan, Oier Ariznabarreta (Durango Kirol Taldea) geratu da txapelkun, Dabid Garciaen aurretik. Ariznabarreta bera "espero baino hobeto" dabil aurtien,

krosean. Maiatzean, Espainiako Duatloi Txapelketa jokatu dute, Avilesean, eta horra begirako prestakuntzan dabil.

Durangaldea Running taldeko Txomin Marañonek eta Ander Hilerak urrezkoak jantzi zituzte, 21 urtez azpikoan eta gazteetan. Bidezabalek ere badu Bizkaiko txapelkun bat, krosean: Garazi Lekunberri, juniorretan. Mugarra Triatloi taldeko Irene Loizatek, aldiz, promesen mailan jantzi zuen urrezko domina.

Nissan-Gaursak Eibarren bisita jasoko du, bihar

Lehen itzulian, eibartarrak nagusitu ziren

> ERRUGBIA J.D.

Durango Nissan Gaursa taldeak Eibar taldearen kontra jokatu du, bihar, 16:00etan, Arripausuetan. Ohorezko B Mailan parean dabilta talde biren arteko lehia izango da.

Talde biak sailkapenaren erdian kokatuta daude; seigarren durangarrak, eta zazpigarren eibartarrak. Orain arte jokaturako 14 partiduetan, seina garaipen lortu zituzte, baina Nissan-Gaursak bonus puntu gehiago batu ditu, eta horregatik,

lau puntu ateratzen dizkio sailkapenean. Lehen itzuliko errebantxa hartzen saiatuko dira Durango Rugby Taldeko gizonak, Eibarrera egindako bisitan 20-7 galdu zuten eta.

Talde biak sailkapenaren erdian kokatuta daude, eta, orain arte, seina garaipen lortu zituzte

MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

ametsen liburua

Urtarrilaren 28an, eguna, 19:00etan.
Ametsen Liburuaren AURKEZPENA

hitz artekalea, 14 durango
